
Moldaketa
2019/04/30
Versión

§A2-II

**NORMA FORAL 1/2016,
DE 17 DE FEBRERO, DE
TRANSPARENCIA DE
BIZKAIA**

**BIZKAIKO GARDENTA-
SUNARI BURUZKO
OTSAILAREN 17KO
1/2016 FORU-ARAU**



NORMA FORAL 1/2016, DE 17 DE FEBRERO, DE TRANSPARENCIA DE BIZKAIA

(BOB nº 37, de 24 de febrero de 2016)

PREAMBULO

La exigencia democrática de que los poderes públicos sean transparentes en el ejercicio de sus funciones y uso de los recursos públicos, es el presupuesto ineludible para una correcta rendición de cuentas ante la ciudadanía y una forma de hacer, así, más efectivo el control de las instituciones y fortalecer la legitimidad de los diferentes niveles de gobierno. Reforzar la confianza de las y los ciudadanos en sus instituciones requiere, por tanto, una apuesta decidida por la Transparencia como una de las dimensiones más fuertes para favorecer un Gobierno Abierto, sensible a los problemas e inquietudes de la ciudadanía y que fomente la participación de esta en la toma de decisiones y la responsabilidad por la gestión de cualquier cargo público.

En efecto, en la línea de fortalecer el Gobierno Abierto como manifestación puntual de la Buena Gobernanza, la presente Norma Foral lleva a cabo una regulación de la Transparencia como cauce de asentamiento de la legitimidad institucional a través de la determinación de unos estándares elevados de publicidad activa, un adecuado marco normativo y procedimental que tiene por objeto hacer efectivo el derecho a la información pública, así como una llamada a la Transparencia colaborativa y a la apertura –con los límites que se deriven de la legislación vigente– de datos públicos.

Mediante esta regulación se pretende que la ciudadanía del Territorio Histórico disponga de un conocimiento lo más amplio posible sobre qué hace la Diputación Foral de Bizkaia, al igual que las entidades del sector público foral de Bizkaia, cómo ejerce sus funciones y de qué manera utiliza sus recursos.

Por consiguiente, la presente Norma Foral se ocupa de la importante materia de la Transparencia, aplicada a la Diputación Foral del Territorio Histórico de Bizkaia y a las entidades del sector público foral.

No cabe ocultar que la Transparencia, como acreditan los dos Índices de Transparencia de Diputaciones publicados por Transparencia Internacional en los años 2012 y 2013, es una de las fortalezas institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia. Partiendo de esas premisas, la presente Norma Foral pretende reforzar esa línea de actuación por medio de una regulación exigente en el ámbito de la publicidad activa.

La trayectoria de la Diputación Foral de Bizkaia no es, sin embargo, una novedad, sino que se remonta en el tiempo. En efecto, en el año 2005 se presentó el Programa BIZKAIA 21 (estrategia de la Diputación Foral de Bizkaia para el Desarrollo Sostenible), donde ya se abogaba por la transparencia como uno de los ejes de actuación. Asimismo, con posterioridad la Diputación Foral de Bizkaia impulsó para el período 2011-2016 (BOB núm. 121, de 24 de junio de 2011), el II Programa BIZKAIA 21,

BIZKAIKO GARDENTASUNARI BURUZKO OTSAILAREN 17KO 1/2016 FORU-ARAUA

(24 zenbakidun BAO, 2016.eko otsailaren 24koa)

HITZAURREA

Botere publikoak haien eginkizunak betetzean eta baliabide publikoak erabiltzean gardenak izan behar direla ezartzen duen eskakizun demokratikoa ezinbesteko oinarria da herritarren aurrean kontuak behar bezala emateko, eta, ondorioz, erakundeak era eraginkorragoan kontrolatzeko eta gobernu-maila ezberdinen legitimitatea indartzeko modu bat da. Herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza indartzeko, beraz, gardentasunaren aldeko apustu irmoa egin behar da, elementu garrantzitsuenetarikoa bat baita gobernu ireki bat lortzeko, herritarren arazoak eta kezak kontuan hartzen dituen, eta herritarrek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea eta edozein kargu publikoren kudeaketatik erantzukizuna eskatzea sustatzen duena.

Hala da; gobernantza onaren adierazpen puntuala den heinean, gobernu irekia indartzeko bidean, foru arau honek gardentasuna arautzen du, erakundearen legitimitatea finkatzeko bide gisa, publikotasun aktiboaren arloan goi-mailako estandarrak eta arauen eta prozeduren arloko esparru egoki bat zehaztuta. Helburua da informazio publikoa eskuratzeko eskubidea errealitate bihurtzea, baita elkarlaneko gardentasuna sustatzeko eta datu publikoak modu irekian eskaintzeko –indarrean dagoen legerian ezarritako mugekin– deia egitea ere.

Arautze honen bidez lortu nahi da lurralde historikoko herritarrek ahalik eta ondoen ezagutzea Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeek zer egiten duten, nola betetzen dituzten dagozkien eginkizunak eta nola erabiltzen dituzten baliabideak.

Beraz, foru arau honen ardatza da gardentasuna, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundian eta foru-sektore publikoko erakundeetan aplikatuta.

Ezin da ezkutatu gardentasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren alderdi instituzional sendoenetako bat dela, Nazioarteko Gardentasuna erakundeak 2012an eta 2013an argitaratu zituen Aldundien Gardentasunaren Indizeek frogatzen duten bezala. Premisa horietatik abiatuta, foru arau honek jarduketa-ildo hori indartu nahi du, publikotasun aktiboaren arloko arautze zorrotz baten bidez.

Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren norabidea ez da gauza berria, aspaldi ekin baitzion bide horri. Hain zuzen ere, 2005. urtean BIZKAIA 21 programa aurkeztu zuen (Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategia garapen iraunkorerrako), non gardentasuna jarduteko ardatzetako bat izatearen alde egiten zen. Geroago, Bizkaiko Foru Aldundiak BIZKAIA 21 II. programa sustatu zuen 2011-2016 aldirako (BAO, 121. zk., 2011ko ekainaren 24koa). Programa horretan, «Gobernantza hobetzea» ildo estrategikoaren

en el que, dentro de uno de los objetivos centrales como es el de "Mejorar la Gobernanza", lleva a cabo una clara apuesta por la transparencia en la gestión de las Administraciones Públicas y por la necesidad de habilitar canales públicos de información por parte de tales Administraciones.

Desde una perspectiva más instrumental, la Transparencia se conecta estrechamente con la reutilización de datos públicos y con el Open Data; esto es, con una apertura de datos que cree valor y pueda ser objeto de uso beneficioso para la propia actividad económica. Se han dado algunos pasos en esta dirección, pero en la presente Norma Foral –en línea con lo expuesto en las regulaciones más avanzadas– se pretende asimismo impulsar esta fuente de conocimiento público y de desarrollo económico potencial que en sí mismo ofrecen los datos públicos para determinadas actividades empresariales.

Por tanto, esta Norma Foral persigue que la transparencia y el acceso a la información pública sean vehículos apropiados para que ciudadanos y ciudadanas puedan llevar a cabo un escrutinio intenso sobre cómo se toman las decisiones, de qué manera se manejan los fondos públicos o los recursos de todos, así como para acentuar los test de control, la interacción de los poderes públicos forales con la ciudadanía y fomentar la escucha activa de dicha ciudadanía del Territorio Foral que, en línea con el desarrollo de una sociedad democrática avanzada, cada vez se muestra más exigente con el control y rendición de cuentas sobre la actuación de sus gobernantes y de sus estructuras administrativas.

En este sentido, no se puede ocultar que son los países con mayores niveles de transparencia los que tienen instituciones más fuertes y mejores sistemas de control y rendición de cuentas de las y los responsables públicos ante la ciudadanía. La transparencia es uno de los elementos nucleares que define la calidad institucional y democrática de los diferentes niveles de gobierno. Y ese fortalecimiento institucional es el que debe revertir en un mayor desarrollo económico, con mejora de la competitividad institucional y palanca, incluso, de generación de riqueza. Pero, además, la transparencia es una poderosa herramienta de mejora de la gestión en las propias estructuras administrativas, pues correctamente aplicada provee de una información a tiempo real del estado de tramitación de los expedientes y representa la agilización y potencial ahorro en lo que a trámites internos respecta, y el avance en la mejora del servicio a la ciudadanía.

Pero realmente donde se da un impulso efectivo a la Transparencia es en lo que afecta a las obligaciones de Publicidad activa, ya que estas superan los estándares mínimos que establece la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, sobre transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. En efecto, las obligaciones de transparencia o de publicidad activa se articulan a efectos sistemáticos en varios ámbitos. A saber: institucional; jurídico-normativo; económico-financiero; de gestión; políticas sectoriales; empleo público; e información de carácter general. Con esa amplia información se pretende que, aparte de las propias estructuras administrativas, la ciudadanía del Territorio Histórico de Bizkaia también disponga de una información de calidad, actualizada, de fácil acceso, clara y sencilla en su presentación y diseño, que le permita conocer cómo ejercen sus funciones los distintos departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y

barruan, herri administrazioen kudeaketan gardentasuna indartzearen alde eta administrazio horietan informaziorako bide publikoak sortzearen alde egiten da, argi eta garbi.

Ikuspegi instrumentalago batetik, gardentasunak lotura estua dauka datuak berrerabiltzearekin eta Open Data delakoarekin, hau da, balioa sortzeko eta jarduera ekonomikorako onuragarria izan daitekeen erabilera ahalbidetzeko, datuak modu irekian eskaintzearekin. Zenbait urrats eman dira bide horretan, baina foru arau honen bidez –arau aurreratuenetan xedatutakoaren ildotik–, bultzada sendoa eman nahi zaio gardentasunari, zenbait enpresa-jarduerarentzat datu publikoek berez eskaintzen duten ezagutza publikorako eta ekonomi garapen potentzial horretarako iturria baita.

Beraz, foru arau honen xedea da gardentasuna eta informazio publikorako sarbidea tresna egokiak izatea herritarrek ondo ikus dezaten erabakiak nola hartzen diren eta funts publikoak edo guztion baliabideak nola erabiltzen diren. Horrez gainera, kontrol-testak indartu nahi dira, botere publiko foralen eta herritarren arteko elkarrekintza sustatu nahi da eta lurralde historikoko herritar horiei modu aktiboan entzuten zaiela bermatu nahi da. Izan ere, gizarte demokratiko aurreratu bat lortzeko bidean, herritarrek gero eta zorrotzagoak dira gobernatzaileen eta administrazio-egituren jardunaren gaineko kontrolari eta kontuak emateari dagokienez.

Ildo horretan, argi dago gardentasun-maila altuenak dituzten herrialdeak direla erakunde indartsuenak dituztenak, baita arduradun publikoak kontrolatzeko eta herritarren aurrean kontuak emateko sistemarik onenak dituztenak ere. Gardentasuna gobernu-maila guztien kalitate instituzionala eta demokratikoa definitzen duten funtsezko elementuetako bat da. Eta erakundearen indartze horrek garapen ekonomikoa handiago bat ekarri behar du, baita erakunde-lehiakortasuna hobetzea eta, ondorioz, aberastasuna sortzea ere. Baina, gainera, gardentasuna oso tresna indartsua da administrazio-egituretan kudeaketa hobetzeko, behar bezala aplikatuta espedienteen izapidetze-egoerari buruzko informazio eguneratua ematen duelako eta barruko izapideak azkartzeko eta lana aurrerzteko aukera ematen duelako, baita herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzeko ere.

Baina publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak zehazterakoan ematen zaio benetako bultzada gardentasunari, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako gutxieneko estandarren gainetik baitaude. Hain zuzen ere, gardentasunaren edo publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak hainbat eremutan banatu dira, ondorio sistematikoei dagokienez. Hauek dira eremuak: instituzionala; juridiko-normatiboa; ekonomikofinanzarioa; kudeaketarena; politika sektoriala; enplegu publikoarena, eta informazio orokorrarena. Informazio zabal horrekin, administrazio-egiturez gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrek kalitateko informazio eguneratua izatea lortu nahi da, eskuratzeko erraza dena, eta aurkezpenean eta diseinuan argia, herritarrek aukera izan dezaten Bizkaiko Foru Aldundiko sailek eta foru-sektore publiko erakundeek dagozkien eginkizunak

entidades del sector público foral, y facilitar así el proceso de rendición de cuentas.

En materia de derecho de acceso a la información pública, la Norma Foral se inclina por dar naturaleza excepcional a las denegaciones de acceso, mediante una interpretación restrictiva de los límites. En todo caso, el proceso de ponderación de los intereses en juego es importante, puesto que en el ejercicio de este derecho se pueden ver en entredicho derechos fundamentales de terceras personas, tales como el derecho a la protección de datos personales y el derecho a la intimidad, entre otros.

No cabe duda de que un buen sistema de Transparencia Pública debe asentarse no solo sobre la Transparencia-Publicidad Activa, sino también sobre un buen diseño organizativo, procedimental y de respuesta ante el ejercicio por parte de la ciudadanía del derecho de acceso a la información pública. La Norma Foral, por tanto, prevé los instrumentos pertinentes, así como las unidades organizativas correspondientes que asumen las funciones necesarias para poner en marcha sus contenidos.

Un punto importante de esta regulación radica en la fijación de las líneas maestras, aunque se prevé un desarrollo ulterior por Decreto Foral, de un órgano independiente y con autonomía funcional encargado de resolver las reclamaciones que se puedan plantear en torno a la denegación expresa o presunta de cualquier solicitud de acceso a la información pública. La Norma Foral opta por aprovechar el caudal de conocimientos técnicos existente en la propia Diputación Foral y prever un órgano de reclamaciones de composición exclusivamente funcionarial. Con ello se salvaguarda la necesaria imparcialidad del órgano, el conocimiento técnico especializado y la garantía de independencia funcional, a imagen y semejanza de la Comisión Jurídica Asesora del Territorio Histórico.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, tiene como función principal resolver tales reclamaciones contra las denegaciones expresas o presuntas. Se trata, por tanto, de una competencia exquisitamente técnica y de alto contenido jurídico, donde los conocimientos sobre procedimiento administrativo, protección de datos personales, derechos fundamentales o aplicación del principio de ponderación o proporcionalidad, son enormemente importantes. La apuesta por el perfil técnico del órgano es, así, la adecuada, teniendo en cuenta que además las y los funcionarios de carrera salvaguardarán perfectamente la imparcialidad y objetividad en la actuación de la Administración Pública.

La Norma Foral se cierra con un Título relativo a la Promoción y Garantías de la Transparencia. Se ha querido hacer hincapié en primer lugar en la idea positiva de fomento y promoción de la Transparencia, pues la real y efectiva implantación de esta en el entramado organizativo foral es sobre todo un reto institucional y cultural de primera importancia, que requerirá cambio de actitudes, formas de trabajo y modo de ejercicio de las responsabilidades. Para ello las medidas de fomento son claves.

En efecto, frente a la apuesta que otros marcos normativos comparados hacen de la transparencia en clave de "reacción", que se fundamenta en un régimen sancionador muy estricto, la presente Norma Foral hace especial hincapié en que la transparencia implica un cambio de cultura organizativa de hondo calado, tanto en lo que

nola betetzen dituzten ezagutzeko; hala, erraztu egingo da kontuak emateko sistema.

Foru arauan informazioa ukatzea salbuespentzat jotzearen alde egin da; horretarako, mugen interpretazio murrizgarria egin da. Edonola ere, tartean dauden interesak haztatzeko prozesua oso garrantzitsua da, eskubide hori erabiltzen denean beste batzuen oinarritzko eskubideak kaltetu ahal direlako, besteak beste, datu pertsonalak babesteko eskubidea eta intimitaterako eskubidea.

Zalantzarik gabe, gardentasun publikoa bermatzeko sistema on batek, gardentasunaren barruko publikotasun aktiboa oinarri izateaz gainera, diseinu on bat izan behar du antolaketari, prozedurei eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzen dutenean emandako erantzunari dagokienez. Hori dela eta, foru arauak beharrezkoak diren tresnak jaso ditu, eta arauaren edukiak abian jartzeko beharrezkoak diren eginkizunak beteko dituzten antolaketa-unitateak ezarri ditu.

Arau honen puntu garrantzitsu bat da organo independente baten ildo nagusiak finkatzen dituela, gero foru dekretu bidez garatzeko. Organo horrek autonomia funtzionala izango du eta informazio publikoa eskuratzeko edozein eskabide ukatzen denean –espresuki edo presuntzioz–, planteatu ahal diren erreklamazioak ebazteaz arduratuko da. Foru arau honetan planteatzen da Foru Aldundian dauden ezagutza teknikoak aprobetxatzea eta funtzionarioez osatutako erreklamazio-organoa bat eratzea. Erabaki horrekin bermatu egiten dira organoaren inpartzialtasuna, ezagutza tekniko espezializatua eta independentzia funtzionalaren bermea, Lurralde Historikoko Lege Batzorde Aholkulariarekin bezala.

Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen eginkizun nagusia izango da ukatze espresuen edo presuntziozkoen kontra aurkeztutako erreklamazioak ebaztea. Eskumen tekniko bat da, beraz, eduki juridiko handia duena, non oso garrantzitsuak diren ezagutza hauek: administrazio prozedurari buruzkoak, datu pertsonalen babesari buruzkoak, oinarritzko eskubideei buruzkoak edo haztapen- edo proportzionaltasun-printzipioaren aplikazioari buruzkoak. Hala, organoaren profil teknikoaren aldeko apustua egokia da, kontuan hartuta karrerako funtzionarioek behar bezala beteko dutela inpartzialtasuna eta objektibotasuna Administrazio Publikoaren jardunean.

Amaitzeko, foru arauak gardentasunaren sustapenari eta bermeei buruzko titulu bat du. Lehenik eta behin, gardentasuna sustatu eta bultzatzearen aldeko ideia positiboa nabarmendu nahi izan da, gardentasun hori Aldundiaren antolaketa-egitura osoan benetan ezartzea lehen mailako erronka instituzional eta kultural bat delako. Jarrerak, lan egiteko erak eta erantzukizunak betetzeko moduak aldatzea ekarriko du erronka horrek. Horretarako, sustapen neurriak funtsezkoak dira.

Hain zuzen ere, alderatutako beste arau-esparru batzuk "erreakzioari" ematen diote lehentasuna gardentasunari dagokionez, zehapen-arabide oso zorrotz batean oinarrituta. Foru arau honek, berriz, nabarmendu nahi du gardentasunak antolaketan sakoneko aldaketa bat egitea dakarrela, bai egitura politikoei dagokienez, bai zuzenda-

afecta a las estructuras políticas, como a las directivas o a las propias del empleo público. Se apuesta, por tanto, por una dimensión “positiva” de la transparencia que vaya encaminada a mejorar la toma de decisiones, los procedimientos administrativos, el modo de trabajar y también redunde en una mayor eficacia y eficiencia de la organización en su conjunto, así como en una efectiva rendición de cuentas de los responsables públicos ante la ciudadanía.

Esta regulación focaliza, en suma, su atención en promover e impulsar una serie de instrumentos y herramientas, tanto formativas como de sensibilización, que vayan impregnando paulatinamente a la Diputación Foral del Territorio Histórico como las entidades del sector público foral, de una cultura de la transparencia como eje de actuación política, directiva o de la gestión pública. La creación del Gabinete de Modernización, Buen Gobierno y Transparencia, fue un primer paso estructural en esta dirección, que se ve ahora complementado por las medidas que se incorporan en esta disposición normativa.

Pero esa dimensión positiva de la Transparencia viene acompañada por otra que sitúa el punto de atención en la exigencia de responsabilidades. Esa transición cultural y ese cambio organizativo que exige la transparencia requerirán tiempo. Por tanto, es mejor inclinarse por una aplicación prudente de tal régimen sancionador. En consecuencia, en esa línea de construcción en positivo del sistema foral de transparencia, la Norma Foral opta por la pedagogía y no por la pura y simple sanción. Así, en una primera etapa, ese régimen sancionador será sustituido por advertencias que, con un sentido institucional de mejora, podrá emitir la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia ante la entidad competente, para que se corrijan determinadas disfunciones o mala aplicación de esa política.

La Norma Foral se cierra con una serie de disposiciones adicionales, transitorias y finales.

El objetivo de esta Norma Foral es, por tanto, el impulso decidido de la Política de Transparencia en la Diputación Foral y en las entidades del sector público foral de Bizkaia, con la voluntad decidida de mejorar la calidad de las instituciones y favorecer la rendición de cuentas. Ambos ejes son presupuesto para reforzar la confianza de la ciudadanía en las instituciones del Territorio Histórico de Bizkaia y apostar así por un mejor gobierno.

TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Objeto

1.- La presente Norma Foral tiene como finalidad garantizar la transparencia, en su doble dimensión de publicidad activa y de derecho de acceso a la información pública, por lo que afecta a la Diputación Foral y las entidades del sector público foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

2.- En particular, se regulan en la presente Norma Foral los siguientes ámbitos materiales:

ritzei edo enplegatu publikoei dagokienez. Beraz, gardentasunaren dimentsio «positibo» baten alde egiten da, erabakiak hartzeko prozesuak, administrazio-prozedurak eta lan egiteko era hobetzeko, eta, bide batez, antolatetan eraginkortasun eta efizientzia handiagoak lortzeko eta arduradun publikoek herritarren aurrean kontuak behar bezala emateko.

Arautze honen ardatza da, beraz, prestakuntzarako eta sentsibilizaziorako zenbait tresna eta lanabes sustatzea eta bultzatzea, astiro-astiro Lurralde Historikoko Foru Aldundian eta foru-sektore publikoko erakundeetan gardentasunaren kultura txertatzeko, jarduera politikoaren, zuzendaritza-jardueraren edo kudeaketa publikoaren ardatz gisa. Bide honetan, egituraren egindako lehen aldaketa izan zen Modernizazio, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Kabinetea sortzea. Orain, aldaketa hori xedapen arauemaile honetan sartutako neurriekin osatuko da.

Baina, gardentasunaren alderdi positibo horrekin batera badago beste bat: erantzukizuna eskatzearena. Gardentasunak behar dituen trantsizio kultural hori eta antolaketa-aldaketa hori gauzatzeko denbora beharko da. Beraz, hobe da zehapen-araubide horren ezarpen zentzuzkoaren alde egitea. Ondorioz, gardentasunean oinarritutako foru-sistema positiboan eraikitze bidean, foru arau honek pedagogiaren alde egin du, zehapen hutsa alde batera utzita. Hala, lehenengo etapa batean, zehapen-araubide horren orde zehapenak erabiliko dira. Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak proposatu ahal izango dizkio ohartarazpen horiek erakunde eskudunari, hobetzeko ikuspegiarekin, politika horretan gertatutako disfunczioak edo ezarpen txarra zuzentzeko.

Amaieran, foru arau honek xedapen gehigarriak, xedapen iragankorrak, xedapen indargabetzailea eta azken xedapenak ditu.

Foru arau honen helburua da, beraz, Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-sektore publikoko erakundeetan gardentasun-politika irmoki sustatzea, erakundeen kalitatea hobetzeko eta kontuak emateko lana errazteko. Ardatz biak funtsezkoak dira herritarrek Bizkaiko Lurralde Historikoko erakundeengan duten konfiantza indartzeko eta gobernu hobe bat lortzeko.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

1.- Foru arau honen xedea da gardentasuna bermatzea, bere bi dimentsioetan (publikotasun aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea), Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundian eta foru-sektore publikoko erakundeetan.

2.- Zehazki, arlo material hauek arautzen ditu foru arau honek:

- a) Una serie detallada de exigencias de cumplimiento de las obligaciones de publicidad activa.
- b) Acceso a la información pública, de acuerdo asimismo con lo previsto en esta Norma Foral y en la legislación que resulte aplicable en cada caso.

3.- Esta regulación establece obligaciones específicas de publicidad activa a los poderes públicos forales y a las entidades del sector público foral de Bizkaia, así como regula el derecho de acceso a la información pública con la pretensión de que ciudadanía y entidades del Territorio Histórico, así como cualquier persona o entidad interesada, puedan conocer, por un lado, la acción de gobierno y la actividad administrativa de la Diputación Foral y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y, por otro, garantizar con ello, en los términos que se establecen en esta Norma Foral, el escrutinio público al que, en cualquier sistema democrático avanzado, debe someterse el ejercicio de la actividad de las citadas instituciones, de sus responsables públicos y de su personal público.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación.

1.- Las normas recogidas en la presente Norma Foral se aplicarán:

- a) A la Diputación Foral de Bizkaia.
- b) A los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos a los mencionados anteriormente.
- c) A las Juntas generales de Bizkaia, en relación con sus actividades sujetas a derecho administrativo, conforme a lo establecido en la Disposición Adicional Quinta.

2.- También resultarán de aplicación las normas de publicidad activa a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

3.- Cuando algunas de las entidades que reciban ayudas o subvenciones persigan exclusivamente fines de interés social o cultural y cuyo presupuesto sea inferior a 50.000 euros y deban estar sujetas a las obligaciones de publicidad activa, el cumplimiento de tales obligaciones derivadas de la presente Norma Foral podrá realizarse utilizando los medios electrónicos puestos a su disposición por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, siempre que las ayudas o subvenciones percibidas provengan la mayor parte de este nivel de gobierno.

4.- Cualquier persona física o jurídica que, mediante contrato o concesión o cualquier otra fórmula prevista en la legislación vigente, preste servicios públicos o ejerza potestades administrativas competencia del Territorio Histórico, estará, previo requerimiento, obligada a suministrar a la correspondiente entidad de la Administración, la información que sea necesaria para el cumplimiento efectivo por parte de ésta de las obligaciones previstas en este Título. Esta obligación se extenderá a las y los adjudicatarios de contratos del sector público en los términos

- a) Publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak betetzeko eskakizun zehatzak.
- b) Informazio publikoa eskuratzea, foru arau honetan eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko legerian ezarritakoarekin bat etorrita.

3.- Arautze honetan, botere publiko foralei eta sektore publikoko erakundeei publikotasun aktiboaren arloan dagozkien betebeharrak zehatzak ezartzen dira, eta, horrez gainera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen da: batetik, lurralde historikoko herritarrek, erakundeek eta interesatuta egon daitekeen edozein pertsona edo erakundeek aukera izan dezaten Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-sektore publikoko erakundeen gobernu-jarduna eta administrazio-jarduera ezagutzeko; eta, bestetik, edozein sistema demokratiko aurreratutan erakunde horiei, arduradun publikoei eta bertako enplegatu publikoei egin behar zaien azterketa publikoa bermatzeko, foru arau honetan ezarritako eran.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1.- Foru arau honetan ezarritako arauak erakunde hauei aplikatuko zaizkie:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiari.
- b) Foru-erakunde autonomoei, foru-erakunde publiko enpresarialeiei, merkataritzako foru-sozietateei, foru-fundazioei eta foru-partzuergoei eta aurrekoen artean aipatu ez diren zuzenbide publikoko beste foru-erakundeei.
- c) Bizkaiko Batzar Nagusiei, administrazio zuzenbidearen peko beren jarduerari dagokienez, bosgarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraikiz.

2.- Publikotasun aktiboari buruzko arauak erakunde pribatuei ere aplikatuko zaizkie, aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen badituzte edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

3.- Laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek interes sozialeko edo kulturalerako xedeak baino ez badituzte eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute eta publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak bete behar badituzte, foru arau honetatik eratorritako betebeharrak horiek betetzeko Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako baliabide elektronikoak erabili ahal izango dituzte, betiere jasotako laguntzen edo diru-laguntzen gehiengoa gobernu-maila horretatik jaso badute.

4.- Kontratu edo emakida bidez, edo indarrean dagoen legerian ezarritako beste edozein formularen bidez, zerbitzu publikoak ematen dituen edo lurralde historikoaren eskumeneko administrazioaren ahalak betetzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridikok, Administrazioak titulu honetan ezarritako betebeharrak benetan betetzeko, behar duen informazioa guztia eman beharko dio Administrazioari edozein erakunderi, errekerimendua egiten zaionean. Betebeharrak hori sektore publikoko kontratuen adjudikaziodunei ere ezarriko zaie, kontratu bakoitzean

previstos en el respectivo contrato. A tal efecto, los correspondientes pliegos deberán prever tales circunstancias.

5.- También estarán sujetos a las obligaciones de transparencia-publicidad activa y, en todo caso, a suministrar información al sector público foral cuando así sean requeridos, los partidos políticos, organizaciones sindicales y organizaciones empresariales que desarrollan su actividad en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia y sean perceptores de subvenciones sufragadas con cargo a fondos públicos propios del sector público foral o de cualquiera de las entidades del sector público foral de Bizkaia.

TÍTULO II PUBLICIDAD ACTIVA

Artículo 3.- Transparencia e información pública en su dimensión de publicidad activa.

1.- Las entidades sujetas al ámbito de aplicación de esta Norma Foral están obligadas a cumplir las exigencias contenidas en la presente disposición normativa y a hacer público por los cauces que procedan y en los plazos estipulados como máximo, cualquier tipo de información pública relevante que sea de interés ciudadano y pueda ser útil para llevar a cabo un escrutinio eficiente de la acción de gobierno y de la acción administrativa de las entidades sujetas al ámbito de aplicación de esta Norma Foral.

2.- Particularmente, atendiendo a las competencias económico-financieras de que dispone el Territorio Histórico, se prestará especial atención al pleno respeto del derecho de protección de datos y del resto de derechos fundamentales, especialmente cuando se trate de difusión de las informaciones de carácter financiero y tributario.

3.- Las exigencias derivadas de la publicidad activa se concretarán preferentemente a través de la difusión de esa información por medios telemáticos e informáticos, principalmente a través de la sede electrónica o del Portal de Transparencia de la Diputación Foral o, en su caso, de las sedes electrónicas, páginas Web o Portales de Transparencia de las entidades del sector público foral.

4.- La publicidad activa se llevará a cabo por medio de formas y contenidos que permitan garantizar la accesibilidad y a través de diseños y mensajes comprensibles y de lectura fácil, así como por medios intuitivos de búsqueda de la información. El acceso será fácil y gratuito. Se garantizará en todo caso que la información publicada sea veraz, pueda ser reutilizable, así como que sea actualizada de forma permanente. En todo caso, se adoptarán las medidas oportunas para garantizar el acceso a las personas con discapacidad o diversidad, de acuerdo con el principio de accesibilidad universal y se articularán los medios necesarios para que tales informaciones puedan ser consultadas fácilmente por la ciudadanía.

ezarritakoa kontuan hartuta. Horretarako, kontratu horien pleguetan inguruabar hori sartu beharko da.

5.- Gardentasunaren barruko publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak bete beharko dituzte, eta, edonola ere, foru-sektore publikoari informazioa eman beharko diote, hala eskatzen zaienean, alderdi politikoei, sindikatuei eta enpresa-erakundeek, haien jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen badute eta foru-sektore publikoaren edo Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen funts publiko propioen kargura ordaindutako dirulaguntzak jasotzen badituzte.

II. TITULUA PUBLIKOTASUN AKTIBOA

3. artikulua.- Gardentasuna eta informazio publikoa, publikotasun aktiboaren ikuspegitik.

1.- Foru arau honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakundeek xedapen arauemaile honetan jasotako eskakizunak bete behar dituzte, eta bidezkoak diren bideak erabilita eta ezarritako gehieneko epearen barruan argitaratu beharko dute informazio garrantzitsu guztia, herritarren interesekoa bada eta foru arau honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakundeen gobernu-jardunaren eta administrazio-ekintzaren azterketa eraginkorra egiteko baliagarria izan badaiteke.

2.- Lurralde historikoak ekonomiaren eta finantzen arloan dituen eskumenak kontuan hartuta, arreta berezia jarriko da datuak babesteko eskubidea eta oinarriko eskubide guztiak erabat errespetatzen direla bermatzeko, batez ere xedea finantzei eta zergei buruzko informazioa zabaltzea denean.

3.- Publikotasun aktiboaren ondoriozko eskakizunak gauzatzeko, lehenetsuna emango zaio informazio hori bide telematikoen eta informatikoen bidez zabaltzeari. Horretarako, Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa edo Gardentasunaren Ataria erabiliko da, edo, bestela, foru-sektore publikoko erakundeen egoitza elektronikoa, web orriak edo gardentasunaren atariak.

4.- Publikotasun aktiboa eskuragarritasuna bermatzen duten moduen eta edukien bidez gauzatu da, eta diseinu eta mezu ulergarriak eta irakurterrazak erabiliko dira, baita informazioa bilatzeko bide intuitiboak ere. Sarbidea erraza eta doakoa izango da. Nolanahi ere, argitaratutako informazioa egiazkoa dela, berrerabili ahal dela eta etengabe eguneratzen dela bermatuko da. Desgaitasunen bat edo dibertsitatearen bat duten pertsonen sartzeko aukera dutela bermatzeko neurriak hartuko dira, irisgarritasun unibertsalaren printzipioaren arabera, eta informazio hori herritar guztiek kontsultatzeko moduan egoteko baliabideak bideratuko dira.

5.- Cuando cualquier entidad sujeta al ámbito de aplicación de esta Norma Foral ejerza las obligaciones en materia de publicidad activa, deberá respetar plenamente la legislación de protección de datos. Si la información que deba publicarse dispone de datos protegidos o sensibles de carácter personal, deberá optarse, en el supuesto de difundirse, por la publicación parcial y/o por la disociación de datos.

6.- Asimismo, la información que se despliegue en las sedes electrónicas será reutilizable y se garantizará su interoperabilidad. Reglamentariamente se podrá regular la reutilización de la información pública, de acuerdo con lo que prevea la legislación al respecto.

7.- En la información pública que se recoja a través del ejercicio de las obligaciones de publicidad activa se tendrán especialmente en cuenta las limitaciones previstas en la presente Norma Foral en lo que afecta al ejercicio del derecho de acceso a la información pública, así como deberá llevarse a cabo cuando sea necesaria la ponderación exigida para dar publicidad a tales datos.

8.- Igualmente, la Diputación Foral y las entidades del sector público foral de Bizkaia dispondrán de medios alternativos a los telemáticos para la difusión de la información, con el objetivo de llegar plenamente a aquellos ámbitos de la ciudadanía que aún no hagan uso cotidiano de los medios digitales.

9.- Toda la información pública se difundirá, al menos, en euskera y castellano. Se fomentará que la información más relevante se publique asimismo en lengua inglesa y francesa.

Artículo 4.- Principios aplicables a la Transparencia-Publicidad activa.

1.- Son principios que rigen la actividad del sector público foral en materia de Transparencia-Publicidad activa, los siguientes:

- a) Principio de veracidad, a través del cual la información que se publique ha de ser cierta y exacta, con procedencia de documentos en los que se haya verificado su autenticidad, fiabilidad, integridad, disponibilidad y cadena de custodia.
- b) Principio de responsabilidad, por medio del cual las entidades sujetas a la presente Norma Foral y sus responsables públicos deberán rendir cuentas del correcto ejercicio de las obligaciones contenidas en la presente disposición normativa.
- c) Principio de utilidad, que conlleva que la información suministrada sea adecuada al cumplimiento de los fines de su difusión pública.
- d) Principio de comprensibilidad, accesibilidad universal y diseño para todos, lo que implicará que se difunda en formatos de fácil lectura y comprensión, inteligibles, sencillos y con mensajes entendibles por el conjunto de la ciudadanía.

5.- Foru arau honen aplikazio-eremuan sartuta dagoen edozein erakundek publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak betetzen dituenean, bete-betean errespetatu beharko du datuen babesari buruzko legeria. Argitaratu behar den informazioak datu babestuak edo izaera pertsonaleko datu bereziak dituenean, informazioa zabaldu behar bada, informazioaren zati bat baino ez da argitaratuko eta/edo datu horiek kendu egingo dira.

6.- Halaber, egoitza elektronikoetan zabaltzen den informazioa berriz erabiltzeko modukoa izango da, eta informazio horren elkarreragingarritasuna bermatuko da. Erregelamendu bidez, informazio publikoa berrerabiltzeko modua arautu ahal izango da, legeriak horren inguruan ezarritakoaren arabera.

7.- Publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak betetzean jasotzen den informazio publikoan, kontuan hartuko dira foru arau honetan ezarritako mugak, informazio publiko eskuratzeko eskubidea baliatzeari dagokionez, eta datu horiek argitaratzeko eskatutako haztapena egin beharko da, beharrezkoa denean.

8.- Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-sektore publikoko erakundeek baliabide telematikoen ordezkioak izango dituzte informazio zabaltzeko, behar bezala iristeko egunero baliabide digitalak erabiltzeko ohiturarik ez duten herritarrengana.

9.- Informazio publiko guztia euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da, gutxienez. Informaziorik garrantzitsuenak ingelesez eta frantsesez ere argitaratzea sustatuko da.

4. artikulua.- Gardentasunaren barruko publikotasun aktiboari aplikatu beharreko printzipioak.

1.- Printzipio hauek dira foru-sektore publikoaren jardueraren ardatz, gardentasunaren barruko publikotasun aktiboari dagokionez:

- a) Egiazkotasun-printzipioa: argitaratzen den informazioa egiazkoa eta zehatza izan behar da; kautotasuna, fidagarritasuna, zuzentasuna, erabilgarritasuna eta zaintza-katea egiaztatuta dituzten dokumentuetatik etorri behar da.
- b) Erantzukizun-printzipioa: foru arau hau bete behar duten erakundeek eta haien arduradun publikoek kontuak eman beharko dituzte xedapen arauemaile honetan jasotako betebeharrak behar bezala bete izanari buruz.
- c) Erabilgarritasun-printzipioa: emandako informazioa egokia izan behar da zabalkunde publikoak egiteko.
- d) Ulergarritasunaren, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioa: erraz irakurtzeko eta ulertzeko moduko formatuetan, formatu ulergarri eta errazetan eta herritar guztiak ulertzeko moduko mezuekin zabaldu beharko da informazioa.

- e) Principio de gratuidad en el acceso a la información pública, con excepción de las tasas o precios públicos que se puedan imponer por la reproducción de copias o soportes o por la conversión de la información del soporte original a formato digitalizado diferente al original, o entrega.
- f) Principio de organización, por medio del cual se proporcionará información estructurada con la finalidad de que su identificación y búsqueda sean de fácil acceso.
- g) Principio de no discriminación tecnológica, a través del cual las entidades sujetas a la presente Norma Foral se obligan asimismo a dotarse de los medios necesarios para que cualquier persona, independientemente de su condición y del uso o no de medios electrónicos, pueda tener acceso a cualquier tipo de información pública relevante.
- h) Principio de interoperabilidad, por medio del cual cualquier información publicada lo sea de conformidad con las normas técnicas de interoperabilidad.
- i) Principio de reutilización, que supondrá la promoción y fomento de toda información pública relevante en formatos que hagan posible su reutilización, apuesten por la apertura de datos, de conformidad con las directivas europeas y la legislación aplicable en materia de reutilización de la información del sector público.
- e) Doakotasun-printzipioa: informazio publikoa doan eskuratuko da, kopiak edo euskarriak erreproduzitzeagatik edo informazioa jatorrizko euskarritik jatorrizkoa ez den formatu digitalizatura aldatzeagatik ezarri ahal diren tasak edo prezio publikoak kenduta.
- f) Antolaketa-printzipioa: informazioa egituratua emango da, identifikazioa eta bilaketa errazteko.
- g) Diskriminazio teknologikoa saihesteko printzipioa: foru arau hau bete behar duten erakundeek beharrezkoak diren baliabide guztiak izan beharko dituzte edozein pertsonak edozein informazio publiko garrantzitsu eskuratzeko aukera izan dezan, pertsona horren izaera edonolakoa dela ere eta baliabide elektronikoak erabili zein ez.
- h) Elkarreragingarritasun-printzipioa: argitaratutako edozein informazioa elkarreragingarritasunari buruzko arau teknikoaren arabera argitaratu behar da.
- i) Berrerabiltze-printzipioa: informazio publiko garrantzitsu guztia berrerabiltzeko aukera ematen duten eta datuak modu irekian eskaintzearen alde egiten duten formatuetan sustatu eta zabalduko da, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeri buruzko Europako zuzentarauak eta aplikatu beharreko legeria kontuan hartuta.

Artículo 5.- Publicidad activa: concepto y dimensiones.

1.- Se entiende por publicidad activa el compromiso, la recopilación y difusión proactiva por publicar de forma periódica y actualizada las obligaciones de información pública relevante destinadas a trasladar a la ciudadanía la actividad en su más amplio alcance de la Administración Pública Foral y de las entidades del sector público foral al efecto de mejorar la rendición de cuentas de los poderes públicos y de sus responsables o funcionariado.

2.- Las exigencias de publicidad activa que se recogen en los artículos siguientes prevén un conjunto de obligaciones mínimas para las entidades sujetas al ámbito de aplicación de la presente Norma Foral, que podrán ser modificadas por normas sectoriales o por planes específicos que se aprueben con posterioridad.

3.- La Administración Foral y las entidades del sector público foral de Bizkaia aprobarán cada tres años un Plan de Transparencia de carácter global y único que, al margen de las previsiones en materia de acceso a la información pública y objetivos de transparencia colaborativa, fijará los objetivos mínimos que en materia de publicidad activa se hayan de alcanzar en ese periodo, así como podrá establecer nuevas exigencias de transparencia en los ámbitos propios de su actividad.

4.- La Diputación Foral de Bizkaia y las entidades del sector público foral de Bizkaia, en los términos que se expresan en el presente Título, deberán hacer pública la información relevante que se detalla en la presente Norma Foral sobre los siguientes ámbitos:

a) Institucional

5. artikulua.- Publikotasun aktiboa: kontzeptua eta dimentsioak.

1.- Publikotasun aktiboa da informazio publiko garrantzitsua aldizka eta eguneratuta argitaratzeko eta informazio horren bilketa eta zabalkunde proaktiboa egiteko konpromisoa, xedea denean Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoaren jarduna, zentzurik zabalenean, herritarrei helaraztea, botere publikoek eta haien arduradun edo funtzionarioek kontuak emateko modua hobetzeko.

2.- Hurrengo artikuluetan jasotzen diren publikotasun aktiboaren arloko eskakizunetan, foru arau honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakundeen gutxieneko betebeharrak bildu dira. Geroago onartzen diren arau sektorialen edo plan zehatzen bidez aldatu ahal izango dira betebeharrak horiek.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-sektore publikoko erakundeek gardentasunari buruzko plan orokor eta bakar bat onartuko dute hiru urterik behin. Plan horrek informazio publiko eskuratzeko eskubidearen arloko eta elkarlanean gardentasuna lortzeko helburuen arloko aurreikuspenak ezartzeaz gainera, publikotasun aktiboari dagokionez epe horretan lortu behar diren gutxieneko helburuak finkatuko ditu, eta gardentasun-betebehar berriak ezar ditzake jardueraren propioaren arloetan.

4.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeek foru arau honetan zehazten den informazio garrantzitsua argitaratu beharko dute, I. titulu honetan xedatutakoaren arabera, arlo hauei dagokienez:

a) Instituzionala

- b) Jurídico-normativa
- c) Económico-financiera
- d) De Gestión Pública
- e) Políticas Sectoriales
- f) Empleo Público
- g) Información de carácter general

Artículo 6.- Información Institucional.

1.- Las entidades sujetas al ámbito de aplicación de la presente Norma Foral harán pública la información siguiente:

- a) Determinación de la composición y funciones de la Diputación Foral, e igualmente de las entidades del sector público foral de Bizkaia con referencia a sus estatutos y normas de organización, así como de los altos cargos o asimilados que prestan servicios en cada entidad, con detalle expreso de la persona que ocupa el cargo público foral, trayectoria política o profesional, así como constancia expresa de las retribuciones percibidas anualmente por las mismas.
- b) Los eventos públicos de la Agenda actualizada de los cargos públicos forales de máxima responsabilidad de los Departamentos y de las entidades del sector público foral de Bizkaia. Esa obligación se materializará gradualmente comenzando, en el plazo de tres meses a partir de la entrada en vigor de la presente Norma Foral, por las personas titulares de la máxima responsabilidad de los Departamentos y en el plazo de doce meses se extenderá al resto de cargos públicos forales.
- c) Estructura institucional y organizativa de la Diputación Foral de Bizkaia, así como de las entidades del sector público foral de Bizkaia, estableciendo las funciones de cada departamento, órgano o entidad, así como incorporando organigramas actualizados con indicación expresa de los puestos de trabajo que ejercen funciones de responsabilidad o mando y el perfil funcional y competencial para su ejercicio. En aquellos puestos que conlleven responsabilidad orgánica se incluirá asimismo la persona que lo ocupa.
- d) También será pública la información de las declaraciones anuales de bienes y de actividades del Diputado/a General, los diputados/as forales, los jefes/as de gabinete, los directores/as generales de los Departamentos y asimismo los directores/as y/o gerentes de los Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y entidades del sector público foral. Del mismo modo, se publicarán todas las resoluciones de autorización o reconocimiento de compatibilidad que afecten a las personas empleadas públicas así como las que autorizan el ejercicio de la actividad privada al cese de los Altos Cargos.
- e) En la Diputación Foral de Bizkaia y en las entidades del sector público foral de Bizkaia se publicarán asimismo los planes y programas en los que se fijen objetivos concretos, así como su grado de

- b) Juridiko-normatiboa
- c) Ekonomiko-finantzarioa
- d) Kudeaketa
- e) Politika sektorialak
- f) Enplegu publikoa
- g) Informazio orokorra

6. artikulua.- Informazio instituzionala.

1.- Foru arau honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakundeek informazio hau argitaratu beharko dute:

- a) Foru Aldundiaren osaera eta eginkizunak, baita Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeena ere, haien estutuak eta antolaketari buruzko arauak aipatuta. Horrez gainera, erakunde bakoitzean dauden goi-kargudun edo parekoei buruzko datuak argitaratu beharko dituzte, zehatz adierazita kargu publiko forala betetzen duen pertsona, pertsona horren ibilbide politikoa edo profesionala eta urtero jasotzen dituen ordainsariak.
- b) Saitetan eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeetan erantzukizun gorenaren kargu publiko foralen agenda eguneratua sartutako gertaera publikoak. Betebehar hau mailaz maila gauzatuko da: sailetan erantzukizun gorenaren titularretatik hasiko da, foru araua indarrean jartzen denetik hiru hilabeteko epean, eta hamabi hilabeteko epean gainerako kargu publiko foraletara zabalduko da.
- c) Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundearen antolaketa-egitura. Sail, organo edo erakunde bakoitzaren eginkizunak ezarri beharko dira eta organigrama eguneratuak agertu beharko dira, berariaz adierazita ardura edo aginte-eginkizunak dagozkien lanpostuak eta lanpostu horiek betetzeko behar diren profil funtzionala eta eskumen-profila. Erantzukizun organikoa duten postuetan, lanpostua betetzen duen pertsona ere adieraziko da.
- d) Ahalduen Nagusiaren, foru diputatuen, kabineteburuaren, sailetako zuzendari nagusien eta erakunde autonomo, erakunde publiko enpresarial, eta foru-sektore publikoko erakundeetako zuzendarien eta/edo kudeatzaileen ondasunen eta jardueren urteko adierazpenei buruzko informazioa ere argitaratuko da. Era berean, enplegatu publikoen batezgarritasuna baimentzeko edo onartzeko ebazpen guztiak argitaratuko dira, baita goi-kargudunek kargu uzten dutenean jardueraren pribatua aritzeko baimena ematen duten ebazpenak ere.
- e) Bizkaiko Foru Aldundian eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeetan, helburu zehatzak finantzatzen dituzten planak eta programak argitaratuko dira, baita haien betetze-maila eta ebaluatu eta al-

cumplimiento y resultados que, en su caso, sean objeto de evaluación y publicación periódica junto con los indicadores de medida y valoración.

- f) En la Diputación Foral se publicará la relación de puestos de trabajo del personal eventual, con indicación de su número, dependencia, funciones y retribuciones.

2.- La publicación de la información a que se refiere este artículo se revisará, como mínimo, con carácter anual.

Artículo 7.- Información de relevancia jurídico-normativa.

La Diputación Foral de Bizkaia, por medio del departamento competente en cada caso, procederá a publicar la siguiente información:

- a) Anteproyectos de Norma Foral y proyectos de disposiciones normativas de carácter general, previamente a ser aprobados por la Diputación Foral.
- b) La normativa en vigor aplicable en el ámbito de sus competencias, al margen de su publicación en los diarios oficiales, en el Portal de Transparencia, página Web o sede electrónica correspondiente.
- c) Informes que, en su caso, hayan sido emitidos por los órganos consultivos con carácter preceptivo, así como las Resoluciones del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.
- d) Las resoluciones administrativas y judiciales que puedan tener relevancia pública.
- e) Los acuerdos adoptados por el Consejo de Gobierno que tengan efectos generales.
- f) Documentos que, de acuerdo con la legislación o la normativa foral sectorial vigente, deban ser sometidos a un período de información pública durante su tramitación.
- g) Las directrices, instrucciones, acuerdos, circulares o respuestas a consultas planteadas por los particulares u otros órganos en la medida en que supongan una interpretación del Derecho o tengan efectos jurídicos.
- h) Las Memorias e Informes que forman parte del expediente de elaboración de las disposiciones de carácter general citadas en el presente artículo.

Artículo 8.- Información de contenido económico-financiero.

1.- Las entidades incluidas en el ámbito de aplicación del presente Título deberán hacer pública la información de contenido económico-financiero, en los términos establecidos en el presente artículo.

2.- La información económico-financiera que se debe hacer pública será la siguiente:

dizka argitaratzen diren emaitzak ere, neurtzeko eta ebaluatzeko erabilitako adierazleekin batera.

- f) Foru Aldundian, behin-behineko langileen lanpostuen zerrenda argitaratuko da, kopurua, lantokia, eginkizunak eta ordainsariak adierazita.

2.- Artikulu honetan ezarritako informazioa urtean behin berrikusiko da gutxienez.

7. artikulua.- Garrantzi juridiko-normatiboa duen informazioa.

Bizkaiko Foru Aldundiak informazio hau argitaratuko du, kasu bakoitzean eskumena duen sailaren bidez:

- a) Foru arauen aurreproiektuak eta xedapen arauemaile orokorren proiektuak, Foru Aldundiak onetsi baino lehen.
- b) Haien eskumenen barruan aplikatu beharreko indarreko araudia, aldizkari ofizialetan eta Gardentasunaren Atarian, web orrian edo egoitza elektronikokoan argitaratzeaz gainera.
- c) Organo aholku-emaileek emandako aginduzko txostenak, baita Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Foralaren ebazpenak ere.
- d) Garrantzi publikoa izan dezaketen administrazio-ebazpenak eta ebazpen judizialak.
- e) Gobernu Kontseiluak onartutako erabakiak, ondorio orokorrak dituztenean.
- f) Indarrean dagoen sektoreko legeriaren edo foru araudiaren arabera, izapidetzean informazio publikoko epe bat bete behar duten dokumentuak.
- g) Norbanakoek edo beste organo batzuek egindako kontsultei dagozkien gidalerroak, jarraibideak, erabakiak, zirkularrak edo erantzunak, Zuzenbidearen interpretazio bat badute edo ondorio juridikoak badituzte.
- h) Artikulu honetan aipatutako xedapen orokorrak prestatzeko espedientea osatzen duten memoriak eta txostenak.

8. artikulua.- Eduki ekonomiko-finantzarioa daukan informazioa.

1.- Titulu honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakundeek eduki ekonomiko-finantzarioa duen informazioa argitaratu beharko dute, artikulu honetan ezarritako baldintzetan.

2.- Hau da argitaratu behar den informazio ekonomiko-finantzarioa:

- a) Los presupuestos de la entidad correspondiente, con descripción de las principales partidas, así como con información actualizada trimestralmente, que sea clara y comprensible, sobre su grado de ejecución.
- b) El grado de cumplimiento de los objetivos de déficit, deuda pública y regla de gasto. En el caso de la deuda pública se expresará tanto la cantidad global como la indicación de su evolución desagregada del endeudamiento por habitante y endeudamiento relativo; y también las operaciones de endeudamiento autorizadas a sus sociedades mercantiles. Se hará con indicación gráfica de la evolución de los mismos en los últimos ejercicios.
- c) Las cuentas anuales que deban rendirse y los informes de auditoría de cuentas y de fiscalización emitidos tanto del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas como del Tribunal de Cuentas del Estado, así como de cualquier otro órgano o entidad.
- d) Información tributaria relativa a los tributos concertados, en especial ingresos fiscales por esta vía y porcentaje en función de cada tributo, así como la evolución de los ingresos en los últimos años.
- e) Gasto público en materia de inversiones y porcentaje por habitante.
- f) Las cantidades asignadas anualmente a los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia como consecuencia de la financiación municipal por los tributos concertados. Esta relación será individualizada.
- g) Plazos de cumplimiento de la legislación referente al pago a proveedores.
- a) Erakundearen aurrekontua, partida nagusien deskripzioarekin eta aurrekontuen betetze-mailari buruzko informazio eguneratuarekin. Hiru hilean behin eguneratuko da informazio hori, eta argia eta ulertzeko modukoa izan behar da.
- b) Defizita, zor publikoa eta gastu-araua direla-eta ezarritako helburuen betetze-maila. Zor publikoaren kasuan, kopuru orokorra eta biztanleko zorpetzeak eta zorpetze erlatiboak izan duten bilakaera adieraziko dira; eta baita bere merkataritzako sozietateei baimendutako zorpetze eragiketarak ere. Azken ekitaldietan horiek izandako bilakaera grafikoki adieraziko da.
- c) Urteko kontuak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Estatuko Kontuen Auzitegiak eta beste edozein organok edo erakundek kontuen auditoriari buruz eta fiskalizazioari buruz emandako txostenak.
- d) Tributu itunduei buruzko informazioa, bereziki bide horretatik lortutako sarrera fiskalak eta tributu bakoitzari dagokion portzentajea. Azken urteetan sarrerak izan duten bilakaera ere argitaratu beharko da.
- e) Inbertsioetan egindako gastu publikoa eta biztanleko portzentajea.
- f) Tributu itunduak direla eta, udal finantzaketaren ondorioz Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei urtero esleitutako kopuruak. Zerrenda hori individualizatua izango da.
- g) Hornitzaileei ordaintzeari buruzko legeria betetzeko epeak.

Artículo 9.- Información de Gestión Pública.

1.- La información de gestión que se deberá hacer pública por la Diputación Foral y las entidades del sector público foral de Bizkaia será la siguiente:

- a) Todos los contratos formalizados, con indicación del objeto, duración, el importe de licitación y de adjudicación, el procedimiento utilizado para su adjudicación, los instrumentos a través de los cuales se ha publicitado, el número de participantes en el procedimiento y la identidad de la adjudicataria, así como las modificaciones y prórrogas del contrato. También serán públicas las decisiones de desistimiento y renuncia de los contratos.
- b) También se procederá a publicar las entidades y los órganos de contratación, con la indicación de su denominación exacta, el teléfono y las direcciones postales y electrónicas, la composición de las mesas de contratación, así como las actas de las mismas y las resoluciones.
- c) La información referida a los contratos menores se publicará, de forma agregada por ámbitos materiales, trimestralmente.

9. artikulua.- Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.

1.- Hau da Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-sektore publiko erakundeek kudeaketari dagokionez argitaratu behar duten informazioa:

- a) Formalizatutako kontratu guztiak, hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazioaren eta adjudikazioaren zenbatekoa, adjudikatzeko erabilitako prozedura, argitaratzeko erabili diren tresnak, prozeduran parte hartu dutenen kopurua, adjudikaziodunaren identitatea eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko edo kontratuei uko egiteko erabakiak ere argitaratuko dira.
- b) Kontratazio-erakundeak eta -organoak ere argitaratuko dira, hauek adierazita: izen zehatza, telefonoa, posta-helbideak eta helbide elektronikoak eta kontratazio-mahaien osaera. Horrez gainera, organo horien aktak eta ebazpenak argitaratuko dira.
- c) Kontratu txikiei buruzko informazioa hiru hilean behin argitaratuko da, arlo materialen arabera erantsita.

- d) Se publicará cada seis meses la información estadística sobre el porcentaje en volumen presupuestario de contratos adjudicados a través de cada uno de los procedimientos previstos en la legislación de contratos del sector público.
- e) Los convenios formalizados por la entidad, tanto con instituciones públicas como privadas, con referencia a las partes firmantes, objeto, duración, modificaciones, así como de las prestaciones y, en su caso, obligaciones económicas derivadas de los mismos.
- f) Las encomiendas de gestión, con indicación de su objeto, presupuestos, obligaciones económicas y las subcontrataciones que se realicen, con mención expresa de las personas adjudicatarias, procedimiento seguido para la adjudicación e importe de la misma.
- g) Las subvenciones otorgadas con referencia a la entidad beneficiaria, la cuantía de la subvención y el objeto de la misma, así como los actos de control realizados, en su caso, para supervisar el correcto cumplimiento de las finalidades de la subvención.
- h) Las subvenciones concedidas a partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones de electores para la financiación de los gastos electorales a las que se refiere el artículo 11 de la Ley 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones a Juntas Generales de los Territorios Históricos, con una explicación de la cuantía concedida en los términos previstos en dicho artículo.
- i) Los procedimientos administrativos electrónicos y sistema de tramitación de expedientes.
- d) Sei hilean behin argitaratuko da sektore publikoaren kontratuei buruzko legerian ezarritako prozedura bakoitzaren bidez adjudikatu diren kontratuei aurrekontuetan dagokien portzentajeari buruzko informazio estatistikoa.
- e) Erakunde publikoekin eta pribatuekin sinatutako hitzarmenak. Hauek adierazi beharko dira: sinatu duten alderdiak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta, hala badagokio, hitzarmenen ondoriozko obligazio ekonomikoak.
- f) Kudeatzeko gomendioak, xedea, aurrekontuak eta obligazio ekonomikoak zehaztuta, eta egiten diren azpikontratazioak, berariaz adierazita adjudikaziodunak, adjudikatzeko prozedura eta zenbatekoa.
- g) Emandako diru-laguntzak. Hauek adierazi behar dira: erakunde onuraduna, diru-laguntzaren zenbatekoa eta xedea, eta diru-laguntzaren xedeak behar bezala bete direla ikuskatzeko burututako kontrol-jarduerak, halakorik egin bada.
- h) Alderdi politikoei, alderdien federazioei nahiz koalizioei eta hautesleen elkarteei hauteskundeetako gastuak finantzatzeko emandako diru laguntzak, 1987ko martxoaren 27ko 11/1987 Legeak, lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskondeei buruzkoak, 11. artikuluan aipatzen dituenak: Artikulu horrek ezarritakoari jarraikiz emandako zenbatekoaren azalpena eta guzti.
- i) Administrazio-prozedura elektronikoak eta espedienteak izapidetzeko sistema.

2.- La Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos publicarán la relación de bienes inmuebles que sean de su propiedad o sobre los que ostenten algún derecho real, así como los vehículos de su parque móvil.

Artículo 10.- Información de Políticas Sectoriales.

1.- Los Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y las entidades del sector público foral publicarán toda aquella información relevante que pueda ser de interés para la ciudadanía en relación con sus políticas sectoriales y con su actuación administrativa, especialmente los planes y programas en los que se fijen objetivos concretos.

2.- Concretamente deberán publicar de forma accesible, comprensible y preferentemente gráfica:

- a) La cartera de servicios que cada departamento o entidad presta a la ciudadanía.
- b) Las Cartas de Servicio, si las hubiere, así como la información estadística necesaria para valorar el grado de cumplimiento y la calidad de los servicios públicos.
- c) La determinación de la sede de la entidad prestadora del servicio y de los horarios de atención a la ciudadanía, así como, en su caso, los precios públicos o tasas que se deban abonar.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek beren jabetzako ondasun higiezinaren edo eskubide erreale baten pean dituztenen zerrenda argitaratuko dute, baita ibilgailuena ere.

10. artikulua.- Politika sektorialeiei buruzko informazioa.

1.- Bizkaiko Foru Aldundiko sailek eta foru-sektore publikoko erakundeek beren politika sektorialeien eta beren administrazio-jarduketaren arloan herritarrentzat interesekoa izan daitekeen informazio garrantzitsua argitaratuko dute; bereziki, helburu zehatzak ezartzen dituzten planak eta programak argitaratuko dituzte.

2.- Zehazki, informazio hau argitaratu beharko dute, erraz eskuratu eta ulertzeko moduan, eta, ahal bada, grafikoki:

- a) Sail edo erakunde bakoitzak herritarrei ematen dizkien zerbitzuen zerroa.
- b) Zerbitzu-gutunak, halakorik badago, eta zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa estatistikoa.
- c) Zerbitzua ematen duen erakundearen egoitza eta jendaurreko ordutegia, eta ordaindu beharreko prezio publikoak edo tasak, halakorik ordaindu behar bada.

Artículo 11.- Información sobre el empleo público.

La Diputación Foral de Bizkaia y las entidades del sector público foral informarán obligatoriamente sobre los siguientes extremos:

- a) Datos relativos a la estructura de plantilla, y determinación del régimen jurídico, así como, en su caso, de las escalas, subescalas, clases y categorías a las que está adscrito el personal.
- b) Ofertas de empleo público, grado de ejecución, así como procesos selectivos del personal funcionario y laboral, con inclusión de las convocatorias para la cobertura de puestos de nombramiento interino o por personal laboral temporal.
- c) Sistemas de provisión de puestos de trabajo, convocatorias y adjudicaciones.
- d) Programas de formación para el personal directivo, funcionario o empleado público.
- e) La composición de los órganos de representación sindical, así como el número de personas existentes agrupadas según la organización sindical a la que pertenezcan y el cómputo anual de las horas empleadas y los costes asociados que generan estas liberaciones para la Diputación Foral de Bizkaia o para las entidades del sector público foral de Bizkaia.
- f) Las relaciones de puestos de trabajo o instrumento organizativo similar, con indicación de sus funciones y las correspondientes masas retributivas.
- g) Planes estratégicos de recursos humanos, planes de ordenación de recursos humanos o planes de carrera profesional.
- h) La relación de empleadas y empleados públicos que tengan autorizada la compatibilidad para un segundo puesto o actividad en el sector público o reconocida la compatibilidad con el ejercicio de actividades privadas.
- i) Las bolsas de trabajo propias y la conformación de las mismas.

Artículo 12.- Información de carácter general.

1.- Las entidades sujetas al ámbito de aplicación de la presente Norma Foral publicarán, además, en su ámbito de actividad aplicable, información que pueda resultar de interés general para la ciudadanía de Bizkaia, como la relativa a la información fiscal, cartográfica, medio ambiente, agricultura, ordenación del territorio y urbanismo, cultura, servicios sociales o de cualquier competencia de las instituciones del Territorio Histórico, sin perjuicio de las obligaciones de información impuestas por la correspondiente normativa específica.

2.- Todas las entidades públicas y privadas sometidas directa o indirectamente al ámbito de aplicación de esta Norma Foral, publicarán, además, los requisitos y condiciones de acceso a los servicios públicos, incluyendo horario y, en su caso, las tasas, tarifas o precios que se

11. artikulua.- Enplegu publikoari buruzko informazioa.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-sektore publikoko erakundeek informazio hau eman beharko dute, nahitaez:

- a) Plantillaren egiturari buruzko datuak eta araubide juridikoa, baita lanpostuei dagozkien eskalak, azpieskalak, motak eta kategoriak ere.
- b) Lan-eskaintza publikoak, eskaintzen betetze-maila, funtzionarioak eta lan-kontratadun langileak aukeratzeko prozesuak, lanpostuak bitarteko funtzionarioekin edo aldi baterako lan-kontratadun langileekin betetzeko deialdiak barne.
- c) Lanpostuak betetzeko sistemak, deialdiak eta adjudikazioak.
- d) Zuzendaritzako langileentzako, funtzionarioentzako eta enplegatu publikoentzako prestakuntza-programak.
- e) Ordezkaritza sindikalaren organoen osaera eta dauden pertsonen kopurua, dagozkien sindikatuaren arabera sailkatuta; urtean erabilitako ordu kopurua, eta liberazio horiek Bizkaiko Foru Aldundiari edo Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeei eragiten dieten kostua.
- f) Lanpostuen zerrendak edo haien antzeko antolakuntza-tresnak, eginkizunak eta ordainsariak zehaztuta.
- g) Giza baliabideen plan estrategikoak, giza baliabideak antolatzeko planak edo karrera profesionalerako planak.
- h) Sektorre publikoan beste lanpostu edo jarduera baterako bateragarritasuna baimenduta duten edo jarduera pribatuak egiteko bateragarritasuna onartuta duten enplegatu publikoen zerrenda.
- i) Lan poltsa propioak eta horien eraketa.

12. artikulua.- Informazio orokorra.

1.- Foru arau honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakundeek Bizkaiko herritarrentzat interes orokorrekoa izan daitekeen informazioa argitaratuko dute ere, beren jarduerari dagozkion eremuan. Besteak beste, informazio fiskala, kartografikoa, ingurumenekoa, nekazaritzakoa, lurralde-antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa, kultura-koa, gizarte zerbitzuei buruzkoa edo lurralde historikoko erakundeen edozein eskumeni dagozkiona argitaratuko dute, betiere araudi espezifikoak informazioaren arloan ezarritako betebeharrak kontuan hartuta.

2.- Zuzenean edo zeharka foru arau honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakunde publiko eta pribatuek, gainera, zerbitzu publikoak eskuratzeko betekizunak eta baldintzak argitaratuko dituzte. Informazio horretan ordutegia adieraziko da, baita, hala bada, gogokio, eskatzen

exigen y, en su caso, las listas de espera existentes para el acceso a los mismos, así como las encuestas de satisfacción ciudadana por la prestación de servicios públicos si éstas no fueran publicadas en otro apartado.

3.- Se darán a conocer a través de los medios propios de transparencia colaborativa los diferentes canales por los que se ofrecen los servicios de atención a la ciudadanía y para la participación ciudadana, el procedimiento para la presentación de quejas y reclamaciones sobre el funcionamiento del servicio, el número de reclamaciones presentadas y el número o proporción de las aceptadas o resueltas a favor de los interesados.

4.- Asimismo, se publicará la información que más demande la ciudadanía y la información pública que sea más frecuentemente objeto del ejercicio del derecho de acceso regulado por esta Norma.

Artículo 13.- Incumplimiento de las exigencias derivadas de la Publicidad Activa.

1.- Por los órganos competentes que se establezcan en cada caso se podrá requerir a la Diputación Foral de Bizkaia, a sus respectivos departamentos y al resto de entidades que se encuentran sometidas al ámbito de aplicación de este Título, de oficio o a instancia de cualquier ciudadano/a, el cumplimiento de las exigencias de Publicidad Activa recogidos en esta Norma Foral.

2.- El incumplimiento reiterado de las obligaciones de publicidad activa por parte de las personas responsables de cada entidad o del personal empleado público con funciones atribuidas en esta materia tendrá la condición de falta grave y el expediente disciplinario se tramitará de acuerdo con lo establecido en el Título IV de la presente Norma Foral, en función de si la persona es cargo público foral o asimilado, funcionaria o empleada pública.

Artículo 14.- Portal de Transparencia.

1.- La Diputación Foral de Bizkaia dispondrá de un Portal de Transparencia, dependiente del departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales a través del Gabinete de Modernización, Buen Gobierno y Transparencia, o al Departamento que en cualquier remodelación de estructura asuma tales funciones, que tendrá como función principal facilitar el acceso de los ciudadanos a la información prevista en los artículos anteriores.

2.- En el período máximo de dos meses desde la entrada en vigor de esta Norma, por medio de una disposición normativa reglamentaria o, en su caso, por acuerdo de la Diputación Foral, se determinarán los detalles técnicos y el contenido del Portal de Transparencia.

Artículo 15.- Transparencia colaborativa.

1.- El Portal de Transparencia, sede electrónica o página Web de las entidades sujetas a la presente Norma Foral, además de contener la información pública establecida en los artículos anteriores, establecerá espacios dirigidos a garantizar la escucha activa, identificar las necesidades de la población y facilitar herramientas para hacer efectiva la participación de la ciudadanía en los asuntos públicos.

diren tasak, tarifak edo prezioak eta zerbitzuetan sartzeko dauden itzarote-zerrendak. Zerbitzu publikoen prestazioa dela-eta herritarrek duten poztasuna neurtzeko inkestak argitaratuko dituzte ere, beste atal batean argitaratu ez badira.

3.- Elkarlaneko gardentasunaren berezko bideen bitartez, informazio hau emango da: herritarrei laguntza emateko zerbitzuak nola ematen diren eta zeintzuk diren herritarrek parte hartzeko bideak, zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko keza eta erreklamazioak aurkezteko prozedura, aurkeztutako erreklamazio kopurua eta onartu direnen edo interesdunen alde ebatzi direnen kopurua edo porzentajea.

4.- Halaber, herritarrek gehien eskatzen duten informazioa argitaratuko da, baita arau honek araututako informazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzearen ondorioz sarrien eskatzen den informazio publikoa ere.

13. artikulua.- Publikotasun aktiboaren arloko eskakizunak ez betetzearen ondorioak.

1.- Foru arau honetan publikotasun aktiboaren arloan ezarritako eskakizunak betetzeko eskatu ahal izango diete kasu bakoitzean ezarritako organo eskudunek Bizkaiko Foru Aldundiari, sailei eta titulu honen aplikazio-eremuan sartuta dauden gainerako erakundeei, ofizioz zein edozein herritarrek eskatuta.

2.- Erakunde bakoitzeko arduradunek edo arlo honetan eginkizunak dituzten enplegatu publikoek publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak behin eta berriz ez betetzea falta larritzat joko da, eta diziplinazko espedientea foru arau honen IV. tituluaren ezarritakoarekin arabera izapidetuko da, falta egin duen pertsona kargu publiko forala edo parekoa, funtzionarioa edo enplegatu publikoa den kontuan hartuta.

14. artikulua.- Gardentasunaren Ataria.

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak Gardentasunaren Atari bat izango du, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren menpe egongo da, Modernizazio, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Kabinetearen bidez. Egitura aldatzen bada, eginkizun horiek bere gain hartzen dituen sailaren menpe egongo da. Atari horren eginkizun nagusia izango da aurreko artikuluetan aipatutako informazioa eskuratzeko erraztasunak ematea herritarrei.

2.- Foru arau hau indarrean sartzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epearen barruan, Gardentasunaren Atariaren xehetasun teknikoak eta edukia arauzko xedapen arauemaile baten bidez, edo, bestela, Foru Aldundiaren erabaki baten bidez zehaztuko dira.

15. artikulua.- Elkarlaneko gardentasuna.

1.- Foru arau hau bete behar duten erakundeen Gardentasunaren Atariak, egoitza elektronikoak edo web orriak, aurreko artikuluetan ezarritako informazio publikoa izateaz gainera, entzumen aktiboa bermatzeko, herritarren beharrezko identifikatzeko eta herritarren eta arazo publikoetan herritarren parte hartzea ahalbidetuko duten baliabideak errazteko espazioak ezarriko ditu.

2.- Asimismo, la Diputación Foral y las entidades del sector público foral de Bizkaia promoverán a través de los medios electrónicos canales de participación de la ciudadanía en la identificación, elaboración, ejecución y evaluación de las políticas públicas forales.

3.- El Portal de Transparencia o de las sedes electrónicas o páginas Web facilitará la evaluación de la calidad de los servicios públicos forales por la ciudadanía.

4.- La Diputación Foral de Bizkaia, a través del portal de Transparencia, publicará un informe anual sobre los recursos administrativos y los recursos contenciosos administrativos presentados.

Artículo 16.- Reutilización de la información y apertura de datos.

1.- Las entidades a las que se extiende el ámbito de aplicación de este Título, al efecto de generar valor, fomentarán la apertura de los datos públicos y la reutilización de la información pública con pleno respeto a las restricciones que se establezcan en la normativa que sea de aplicación en el sector público.

2.- Salvo supuestos tasados reglamentariamente, se promoverá la reutilización libre de los datos sin someterla a solicitud previa ni sujetar su ejercicio a licencia o autorización previa. Por tanto, se facilitará su redistribución, reutilización y aprovechamiento en un formato digital estandarizado y abierto.

TÍTULO III DERECHO DE ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA.

Artículo 17.- Información pública.

1.- El derecho de acceso a la información pública ejercido por la ciudadanía ante las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral, se regirá por las previsiones recogidas en este Título y por lo dispuesto en la legislación que sea de aplicación.

2.- Se entiende por información pública cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones.

Artículo 18.- Derecho de acceso a la información pública.

1.- Las personas físicas y jurídicas podrán ejercer el derecho de acceso a la información pública en los términos recogidos en la presente Norma Foral y en la legislación general que regula esta materia.

2.- El ejercicio del derecho de acceso a la información pública no requerirá ningún tipo de motivación, ni acreditar que se dispone de la condición de interesado o que concurre ningún otro derecho e interés legítimo.

3.- Las limitaciones no serán superiores a las establecidas en la legislación general reguladora del ejercicio del

2.- Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-sektore publikoko erakundeek herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko kanalak sustatuko dituzte bitarteko elektronikoen bidez, Aldundiaren politika publikoak identifikatu, prestatu, bete eta ebaluatzeko.

3.- Gardentasunaren Atariak, egoitza elektronikoen edo web orriek zerbitzu publiko foralen kalitatea ebaluatzeko aukera emango diete herritarrei.

4.- Bizkaiko Foru Aldundiak, Gardentasunaren atariaren bitartez, aurkeztutako administrazio errekurtsoei eta administrazioarekiko auzi errekurtsoei buruzko urteko txosten bat argitaratuko du.

16. artikulua.- Informazioa berrerabiltzea eta datuak modu irekian eskaintzea.

1.- Titulu honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakundeek datu publikoak modu irekian eskaintzea eta informazio publikoa berrerabiltzea sustatuko dute, balioa sortzeko, sektore publikoan aplikatu beharreko araudian ezarritako mugak kontuan hartuta.

2.- Arauz tasatutako kasuetan izan ezik, datuak libreki berrerabiltzea sustatuko da, aurretik eskabiderik aurkeztu gabe edo horretarako aurretiazko lizentzia edo baimenik eskatu gabe. Beraz, datuak formatu digital estandarizatu eta ireki batean birbanatzeko, berrerabiltzeko eta aprobetxatzeko aukera emango da.

III. TITULUA INFORMAZIO PUBLIKOA ES- KURATZEKO ESKUBIDEA.

17. artikulua.- Informazio publikoa.

1.- Herritarrek foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeen aurrean informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko, titulu honetan jasotako xedapenak eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoa beteko da.

2.- Informazio publikoa da foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok.

18. artikulua.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

1.- Pertsona fisikoek eta juridikoek baliatu ahal dute informazio publikoa eskuratzeko eskubidea foru arau honetan eta arlo hau arautzen duen legeria orokorrean ezarritakoaren arabera.

2.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko ez da behar motibaziorik, ezta interesdun izaera edo bestelako eskubide edo interes legitimorik egiaztatzea ere.

3.- Eskubidea baliatzeko ez da ezarriko informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera arautzen duen

derecho de acceso a la información pública. La denegación de acceso a la información sólo se podrá hacer en los casos en que se compruebe que el acceso a esa información puede provocar un daño efectivo al interés público o vulnerar el derecho de protección de datos personales, ponderando en cada caso la trascendencia que ese daño pueda tener.

4.- El derecho de acceso a la información pública se hará efectivo mediante procedimientos basados en las menores exigencias formales, así como en la sencillez y rapidez en su desarrollo y resolución.

5.- El derecho de acceso a la información pública recogida en los expedientes administrativos y que se hallen concluidos, se regirá, salvo regulación sectorial específica, por lo establecido en la presente Norma Foral y en la legislación básica que prevé el ejercicio de tal derecho. En todo caso, se respetará la protección de datos personales y aquellos otros derechos fundamentales que se pudieran ver afectados.

Artículo 19.- Derechos de las personas solicitantes de información pública y obligaciones de las personas que acceden a esa información.

1.- El acceso a la información será gratuito. No obstante, si se materializa mediante la expedición de copias o la trasposición a un formato diferente al original, se podrá exigir el pago de una cantidad que no exceda de su coste real, de conformidad con lo establecido en la Norma Foral de Tasas y Precios Públicos. Quienes soliciten información pública dispondrán de los siguientes derechos:

- a) A ser informados de los derechos que les otorga la presente Norma Foral y la legislación vigente, así como a recibir asesoramiento institucional para garantizar la efectividad real del derecho.
- b) A recibir la información solicitada en los plazos establecidos por la presente Norma Foral y la legislación aplicable, y a que le sea entregada en la forma y formatos indicados en la solicitud, salvo que esa opción sea materialmente imposible y así se exponga de forma motivada.
- c) A conocer los motivos de cualquier denegación, total o parcial, de acceso a la información.
- d) A utilizar la información pública entregada sin necesidad de ningún tipo de autorización previa o comunicación a la Administración, teniendo en cuenta los límites previstos en la legislación vigente.
- e) Si la solicitud de información pública fuera defectuosa o estuviera formulada de manera imprecisa, se advertirá al solicitante de tal circunstancia con expresión de las causas por las cuales se considere ambigua o dudosa, concediéndole un plazo máximo de diez días hábiles para su subsanación ofreciéndole asistencia para la concreción de la solicitud. La subsanación implicará la suspensión del plazo para dictar resolución. Transcurrido el plazo sin haber subsanado la solicitud se procederá a su archivo por desistimiento. Esto no será obstáculo para presentar una nueva solicitud.

